


EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA

2021								2022			
Maia.	Eka.	Uztail.	Abuz.	Irail.	Urri.	Azar.	Aben.	Urta.	Otsa.	Mart.	Apir.
145,5	141,8	135,9	129,5	128,3	130,0	130,8	131,3	131,6	131,9	131,2	129,4

EAEko ekonomiaren termometroa 129,4an kokatu zen apirilean, oraindik ere hazkunde biziko eremuan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, ia bi puntuko moteltzea izan du. Horretarako arrazoia kontsumo pribatuaren dinamismo txikiagoa da, inflazioak erosteko ahalmenean jadanik duen eraginaren ondorioz. Baita ere zerbitzuen apaltzea aipatu behar da, bereziki familientzako zerbitzuena. Bestalde, bai industriak bai eraikuntzak hazkunde erritmo sendoari eutsi diote. Enpleguak ere bilakaera positiboa erakutsi du hilabete horretan.



Oharra: EAEko ekonomiaren termometroaren egiteko hileko bakoitzaren lehen egunetan eskuragarri dagoen informazioa erabiltzen da.

